

Irakasletza eta Psikopedagogiako 250 ikaslek jaso zituzten karrera amaierako diplomak

2008/11/16

Azaroaren 14an, Huhezi fakultateko kapera berritua bete egin zen lehen aldiz, bertan **250 ikasle** baitzeuden diplomak jasotzeko gertu, denak Irakasle Ikasketak, Psikopedagogia eta 2. diploma egin berriak.

Matilde Sainz Irakasle Ikasketetako eta Psikopedagogiako zuzendaria izan zen zeremonia maisu ekitaldian. Sarrera hitzetan, behin baino gehiagotan aipatu zuen ikasleek fakultatean egindako **ibilbidea**.

Imanol Igeregi Erkideko lehendakariak hitz egin zien gero. **Biharko hezkuntzaren zenbait ezaugarri** izan zuen hizpide. Zenbait proiektzio egin zituen, jakiteko zelako eskolak izango ditugun urte batzuk barru, eta prest egon gaitezen orduko erronkei egoki erantzuteko. Teknologia berriak aipatu zituen, migrazioa, balioak, genero berdintasuna, jaiotze tasa eta belaunaldi aldaketak irakasleen artean. Hezkuntza beti gizartearen atzetik doa beti, Igeregiren iritziz, eta horregatik paktu bat aldarrikatu zuen, sistema eta curriculum adosteko.

Diplomak eman aurretik eta ondoren, Nekane Arratibel dekanoa eta Javier Sotil MUko Errektore Kontseiluko lehendakariak hitz egin zuten, eta biek animo hitzak izan zituzten diplomadun berrientzat.

Amaieran, Ain_1 musika taldeak jo zuen. Lau neskek osatzen dute taldea: Ainara, Amaia, Iraitz eta Itsaso, eta lauren artean musika, poesia eta dantza landu zituzten, denon atseginerako. Ikuskizunaren ostean, berriz, luntx bat eskaini zitzaizen guztiei.

Ekitaldiko argazkiak Flickr-en daude ikusgai.

